

Aretxagazeta

aretxabaleta
1995eko maiatzak 11

Euskeraren eguna

Mikel eta Pauxi
Margolariak


Leintz udal
euskaltegiko 10.
urteurrena



Otala-zelai
eguna



Aluzinatu gure Feria !!



**Autoaren Feria ikusgarria Meca-n
Maiatzaren 12tik 14ra**



RENAULT



95eko gamaren aurkezpena
Twingoa probatzeko aukera


Prezio bereziak aukerako eta auto berrietan

Bisita gaitzazu eta berrikuntzak, prezio, ustegabeko opariak, etab. aurkituko dituzu

Otala-zelai eguneko zer gogoratzen duzu?

Jesus Bengoa
(Jubilatua)

Danbolintterue kaletik gora joaten zen musika joaz eta jendea joaten zen aldamenean. Soziedade arteko sokatirak egiten ziren.



Ana Mari Aretxaga
(Langilea)

Goizean goizetik Mondrauetik, Eskoriatzatik eta leku askotatik hamarretako eta bazkariak etortzen zen jendea. Gero dantzaldia egoten zen.



Visi Alzola
(Jubilatua)

Jai haundia izaten zen. Bertsolari ospetsuak etortzen ziren, Basarri, e.a. Trikitilariak, bateria eta sasfoi jotzailea... umeentzako asto karrerak, e.a.




German Gonzalez
(Langilea)

Orain baino jende gehiago egoteaz gain familia giroan ospatzen zen. Otala-Zelai egunean askotan euria egiten zuen.



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultur sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aretxabaletako Udalak diruz lagundutako aldizkaria

ESKUTITZAK

KORRIKA DELA TA EUSKALTEGIAREN OHARRA

Martxoaren 21ean arratsaldeko 7etan, korrikari buruzko azken zehaztasunak konkretatzeko bilera izan genuen.

Bertan, korrikaren ordezkariak kilometro banaketaren berri eman zuen eta Murruxokoez ez beste guztiok dorsala jaso genuen. Murruxokoko ordezkariari hurrengo egunean jasoko zutela esan zitzaion.

Hau horrela, Murruxori eta guri Arbizelaitik Fagor pareko aroztegira doan kilometroa tokatu zitzaigun. Banaketaren ordena Euskaltegi-Murruxoko izan zelarik. Hau da, euskaltegiak Arbizelaitik Mugarrira egin behar zuela eta bertan testigua pasatu behar genielako erabaki zen.

Euskaltegiko irakasleak

ARETXABALETAKO HERRIARI

EAJ eta EA alderdiek kaleratu berri duten komunikatuaren aurrean, ZINEGOTZI talde honek zera esan gura luke:

- 1) Herri Batasuna indar abertzalea izanik, zergatik utzi dute alde zurretik kanpoan inolako aukerarik eman gabe? Ez litzateke hobe abertzale guztien batasuna?
- 2) Zergatik baztertu gaitu EA-k, hitzik ere esan gabe, azken urteetan Gobernuan elkarrekin izan eta gero? Atxabaltako herriak eskatu al du?
- 3) Zergatik disfrazatzen dituzte hautagaiak independente moduan, azken 8 urteetako esperientziak argi eta garbi adierazi duenean esanak bete-betean kunplitzen direla?

Gure ustez, EAJ-tik zuzendutako estrategia honek bi helburu nagusi ditu:

- Aretxabaletako Eusko Alkartasuna behin betiko irenstea, desagertaraztea batetik eta
- Herri Batasuna baztertua, Ajuria-Eneako aginduei jarraituz, bestetik.

Talde honen iritzi ez litzateke ARETXABALETA goi-mailako politika gunea bihurtu behar, eta horretarako alderdi politiko guztien arteko Gobernu integratzaile bat gustatuko litzazuke etorkizunerako eta HERRIAK ETA EZ BESTE INORK AUKERATUTAKO ALKATEA, orain arte izan den bezalaxe.

Jokin Bengoa, Felis Beltran de Heredia, Aitor Irure.

Tapia eta Leturia Band gaztetxean

Apirilaren 26an Tapia eta Leturia Band boskoteak diska berria aurkeztu zuen gaztetxean. Hauek bai martxa ekarri zutena!!!. Eskaini zuten kontzertuan euren kantu berriak kantatu zituzten. Bat baino gehiago harrিতා geldituko zen seguruasko haiek eman zuten kontzertuarekin. Kantu berriek ez dute egia esan lehengo antz haundirik. Normala

den moduan talde guztiak originaltasuna bilatzen saiatzen dira. Hauek ere erakutsi zituzten hainbat nobedade. Alde batetik doinua ateratzeko tresna berriak erabili zituzten eta kantuetan ere originaltasuna lortu gura izan dute.

Esan daiteke musika mota guztiak ikutu zituztela, errosariorik hasi eta musika gogorragoetaraino, rocka, folka, reggae-a, e.a.



Tapia eta Leturia Band izan zen gaztetxean euren kantu berriak estrainatu guran.



Etxe barriak egiteko erabiltzen ari diren gruan ikus daiteke "INSUMISIOA" dioen pankarta

Antimilitaristak ez daude ixilik

Joan den apirilaren 29an, arratsalde partera "INSUMISIOA" zioen pankarta ikus zitekeen Araba Ibilbidea kalean etxe barriak egiteko erabiltzen ari diren gruan.

Atxabaltako Talde Antimilitaristak jarri zuen pankarta eta esan behar nahiko meritu izan zutela hara gora igotzeko.

Talde honek, Euskal Herriko beste talde batzuekin batera "Euskal Herriko desmilitarizazioa eta ejerzitoen abolizioa" kanpaina jarri du martxan. Talde antimilitaristak desmilitarizazioa, gizarte guztiari dagokion helburua dela uste du.

Talde Antimilitarista ez dago ixilik, ezta geldik ere. Jakin gura duenarentzat ostiralero biltzen dira Kultur etxean eta esan behar lagun mordoxka elkartzen direla. Oraindik lokal finkorik ez dute eta gauza haundirik egin ezin duten arren, KAKITZATEkoekin koordinatu eta MOCekin harremanetan dihardute.

CONSUM EROSKI

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8

Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g

Tfnoa: 79 16 05

ARETXABALETA

Mobiliario
ARENAZA


ALTZARIAK

DISEINUA

APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 79 08 07 Aretxabaleta

BEIRALAN



KRISTALDEGIA

Loramendi 10 ☎ 79 81 78

Aretxabaleta

LUDI-BERRI

Musika Taldea

- Ezteiak
- Bataioak
- Banketeak
- Jaialdiak

Tfnoak: 77 00 95/77 11 63

MASAIK ZARAIA

MASAIK eta
OSTEOPATIA

Berrikuntzak



MODAN
DAGOEN
GUZTIA

Iparagirre, 4
Tfnoa. 79 21 24

Herriko odol-emaleen kopurua

Apirilaren 3, 10 eta 18an odola emateko kanpaina egin zen Atxabaltan. Osakidetzako odol bankuaren sareak bidali dizkigun datuen arabera esan daiteke lagun askok eman zuela odola aurrean aipatutako 3 egun hoietan.

Apirilaren 3an esaterako, **39 lagunek** eman zuten odola. Hauetatik 3 berriak ziren eta guztira 46 lagun izan ziren odola eman nahi izan zutenak, baina arrazoi bategatik edo beste bategatik ez zituzten beharrezko baldintzak betetzen.

Bigarren eguneko datuak berriz ondorengoak dira: **48 odol emaile**, hauetatik 3 berriak eta guztira odola eman gura izan zutenak 51.

Azkenik, apirilaren 28an aurreko egunetako kopurua jeitsi egin bazen ere, **25 lagunek** eman zuten odola. Kasu hontan ere, aurrekoetan bezala, 3 pertsona barri egon ziren. Eta guztira azaldu zirenak 28 izan ziren.

Esan daiteke datu pozgarriak direla, gure herrian odol emaleen kopurua nahiko haundia da eta.

Osakidetzako odol bankuaren sareak, odol emate honetan laguntza eskaini zuten guztiei esker ona bidaltzen die. Hurrengo baterako ere bide horretan jarrai dezaten animatuz.

Uribe-Kostako txistulariak herrian



Uribe-Kostako txistulariek Durana kalea zeharkatzen zuten bitartean

Bizkaiko hainbat herritatik etorritako txistulariak egon ziren apirilaren 30ean herrian. Goizeko 11etatik hasi eta herriko hainbat kale zeharkatu zituzten txistua joaz. Bat baino gehiago ohetik jaikiko zuten ziurrenik.

Gorliz-Plentzia, Sopelana, Urduliz-Berango, Getxo, Leioa, Larrabetzua, Derio, Zamudio, Lezama eta Mungiatik hurbildu ziren txistulari hauek **Demetrio Iriartek** konposatutako abestiak jo zituzten, **Txomin (Zortzikoa); Magdalena; Egileor; Xabier (Fandango); Eraña'tar Erramon** eta **Gora kirolak martxa**.

Dotore dotore herriko kaleak alaitu ondoren, Urkulura bisita egin zuten. Larriñuko soziedadean ere izan ziren. Eguerdia aldera Durana kalean kontzertua eskaini zuten eta amaitzeko Taberna-Berrin bazkaldu.

Arratsaldean oraindik ere kaleak animatzen aritu ziren.

EGUNKARIA FESTA

Datorren ekainaren 11n Arrasaten **EGUNKARIA FESTA** izango dela eta diru trukea egiteko Aretxabaletako 20 lagun behar dira. Lanerako gertu egonez gero, gerturatu zaitezte lehenbailehen Loramendiko lokalera edo eta deitu 77 09 70 telefonora.

JANTZI DENDA

ASENSIO

Mitarte Kalea, 12

Tel. 79 10 72

ARETXABALETA

**"HERRASTI"
AKEITA**



Aralar kalea, 7
Tfnoa: 79 32 83



MAPFRE

Aseguroak
Errekabarren, 3
Tfnoa: 77 11 76

FOTO

Urkiola

Tfnoa: 79 39 20
ARETXABALETA

**GARBITU
S. KOOP**

Garbiketa orokorrak
Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 79 01 28

Diputazioko Ongizate saileko Elvira Kortajarena diputatua izan zen herrian

Maiatzaren 4an, **Elvira Kortajarena**, Ongizate saileko Diputatua Atxabaltan egon zen. Bere bisitaren arrazoiak bi izan ziren; alde batetik herriko oztopo arkitektonikoak kentzearen inguruan, Udalak egindako lana ikustera etorri zen eta beste aldetik gutxitu psikikoendako egingo diren etxebizitza batzuen inguruan hitzegitera.

Oztopo arkitektonikoen kentzea:

Udalak azken 4 urte hauetan oztopo arkitektonikoen alorrean lan handia egin du, arrapalak jarriz, e.a. Modu honetan ezintasun fisikoren bat dutenei bideak erraztuz.

Kaleko traba gehienak kendu dituzte baina oraindik edifizio konkretu batzuetako trabak kentzea gelditzen zaie.

Lau milioi pezetetako gastuak izan dituzte lan honetan eta Diputazioak % 50a finantziatu du.

Gutxitu psikikoendako pisuak:

ATZEGIk, Gipuzkoako Atzeratuen Aldeko Elkarteak, gutxitu psikikoak euren kasa bizi ahal izateko hainbat pisu jarri du martxan. Laster horrelako beste etxebizitza batzuk egin gura da eta Atxabaltan jarriko dira martxan.

Gutxitu psikikoendako pisuak gure herrian martxan jarri ahal izateko, Diputazioa, ATZEGI eta Atxabaltako Udalaren arteko batzarra egon zen.

Batzarrean ATZEGIk hurrengo pisuak Atxabaltan izango zirela baieztatu zuen. Honez gain Diputazioa, konforme agertu zen etxe hauetako mantenimendu gastuak ordaintzeko.

Etxebizitzak hornitzeko dirua ere badago. Diru hau, herriko pertsona batek gutxitu psikiko eta fisikoei laguntzeko utzitako heredentzia batetik dator. Kolokan dagoen gauza bakarra, pisu hoiek zein lekutan kokatuko diren da. Aratz taldeak eta ATZEGIk, Udalari bi etxebizitza usteko eskatu diote baina oraindik ez dago erabakirik Udalak zein etxebizitza utziko dien.

16tik 18ra urte bitarteko gazteei zuzendutako ikastaroak

Eskolan jarraitu nahi ez edo eta eskola utzi duten gazteei lanbide desberdinetan aritzeko eta prestatzeko ikastaro batzuk antolatu dira. Heziketa integrala izango da, gazteei, beren autoestima indartuz, gizarteratzeko eta laneratzeko prestakuntza emago zaie.

Bi ikastaro mota egongo dira: alde batetik, **elektrizitatea, aroztegia eta mekanika** eta beste aldetik, **sukaldaritza, artisaugintza eta ofimatika**.

Izena eman nahi duenak baldintza hauek bete beharko ditu:

1.- Deba Garaiko udalerriren batean erroldatua egotea.

2.- Langabetua izatea.

3.- 16tik 18ra urte bitartekoa izatea.

Ikasturtearen iraupena urte betekoa izango da, hau da, 1995eko irailetik 1996ko ekainera artekoa. Guztira 1.000 ordu inguru eginez.

Izen emateko edo eta informazio gehiago gura izanez gero Udaletxeko enplegu teknikariarengana hau da, **Marta Madinabeitiarengana** jo behar da.

Eskabideak egiteko epea maiatzaren 4tik 18ra bitartekoa da eta jakinarazten da **plazak mugatuak** direla.

Batzokiko ateari sua eman zioten ezezagun batzuk

Pasatu den domekan, goizeko 3,30ak aldera, ezezagun batzuk sua eman zioten Batzokiko ateari, erregaia bota ondoren.

Suak kalteak eragin zituen Batzokiko sarreran. Barrualdea ere guztiz belzturik geratu zen kearen ondorioz. Eskerrak momentu hartan Batzokian inor ez zegoena eta sua erregaia amaitzeaz bat amaitu zena.

Bestalde, larunbatean Durana kaleko telefono kabinako kristalak apurtuta agertu ziren.

IMANOL JANARI DENDA

Harategia
BEREZIKI Urdaitegia
Fruitategia
Gorbea Kalea ☎ 79 05 83 ARETXABALETA

LEIBAR ARRAINDEGIA



Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 77 13 79
ARETXABALETA

Euskeraren Eguna eta Ojala-zelai eguna, biak asteburu berean

Maiatzaren 20rako **EUSKARAREN EGUNA** antolatu du, Loramendi K.E.ak. Goizean goizetik ekingo zaio festa giroari eta gauerarte iraungo du jaiak. Hona hemen egitaraua:

- Goizeko 11etan herriko kaleetan zehar **Diana**. Txalapartari, bertsolari eta trikitilariekin lagundurik.
- 12,00etan, Loramendiko lokalaren aurrean, **herriko produktuen degustazioa** (gazta eta sagardoa).
- 13,00etan, **poteoa trikitilariekin**.
- 14,00etan, **herri bazkaria** Durana kalean.
- 16,00etan, **haurrentzako jolasak**, **Ortzadar** taldearekin.
- 17,00etan, **Larrain dantza** eta **Mutxikoak** herritar guztiendako.
- 19,30etan, **emakume arteko bolo txapelketa**.
- Gaueko 10,00etan, **Maixa eta Itziarrekin** erromeria izango da Durana kalean. Gaztetxean berriz, **SS 77** eta **Heriotza** taldearekin jaialdia izango da.

Loramendi K.E.ak egun honetarako ekintzetan parte hartzeko deialdia egiten du.



Giro polita egon zan iaz Euskararen egunean. Artalataikoan jendeak ilada luzea osatu zuen. Aurten, ia lagun gehiago animatzen den.

Aurten Ojala-zelai eguna maiatzaren 21ean ospatuko da, ohikoa den baino astebete beranduago. Hala ere eguna pasatzeko makina bat ekintza eta zer ikusi egongo da. Hona hemen egunean zehar egongo diren ekintzen programa:

- 10,30etan, **herriko txistulariaren kalejira**.
- 11,00etan, herriko **trikitilarien** laguntzaz Herriko Plazatik Ojala-zelairaino oinez igoko da.
- 11,30etan **animaliekin jokuak**.
- 13,00etan, **bertsolariak**
- 13,30etatik 14,30etara, berriz ere **trikitilariak** giroa alaituko dute.
- 17,30etatik 18,00etara, **haurrentzako jokuak** egongo dira Loramendiko gazte taldeak antolatuta.
- 18,00etan, Loramendi Dantza Taldeak eskainitako dantzak.
- 18,30etatik 20,00etara, **herriko trikitilariaren dantzaldia** Ojala-zelain.
- 22,00etatik 24,00etara, Aldaba Taldearekin **dantzaldia** Durana kalean.

Guzti honez gain, iaz bezala Murruxok taberna jarriko du. Eta gainera sariak eta gaztelu puzgarria ere han egongo dira.

Ea ba, eguraldiak laguntzen duen aurtengo Ojala-zelai egunean.



Lasagabaster

Zure Konfiantzazko Denda

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE
TFNOA: 79 27 27 / 79 13 55

Historilariantzat liburu guztiz baliotsua Julen Urkizarena

Julen Urkiza Karmeldararak "Elizaren Historia Euskal Herrian. I. Ikerlan materialak" liburua argitaratu berri du. Euskal Herriko Elizaren historia orain arte egin den azterlanik sakon eta luzeena. Ia mila eta bostehun orrialdeko lan mardula. Egilearen hitzetan "Euskal Herriko Elizaren historia egiteko lehen saioaren hasiera" litzateke lan hau, orain saio hori oinarritzat hartu eta sakondu egin nahi du, eta dagoeneko prest du hurrengo urteotan argitaratzeko materiala. Edonola ere, orain kaleratutako honetan interes handiko agiriak bildu ditu.

Egunkaria
(95-05-3)

Euskal musika- ren sorkuntzaz Parisen

EUSKAL musikaren sorkuntzaz jardunaldiak antolatatu ditu Pariseko Euskal Etxeak, Eusko Jaurlaritzaren eta Euskal Kultur Erakundearen laguntzaz, maiatzaren 17, 18 eta 19an. Maiatzaren 17an hitzaldia izango da, Sorbonne unibertsitatean, "Musikak eta Euskal Herria: egoera eta etorkizuna" gaiaren inguruan, eta Andre Gabastou, Jean Luc Berho, Txomin Hegi, Francisc Marmunde eta Xan Mixel Etxekoparten parte hartzeaz. Maiatzaren 18an, Le Divan du Monde aretoan kontzertua eskaniko dute **Lin Ton Taum, Su Ta Gar** eta

Iazko urtetik Seaskak administrazioarekin lortutako hitzarmenaren ostetik, batek baino gehiagok pentsatuko du diru beharrik ez dala izango iparraldeko ikastolentzat eta sobran izango dala Senpereko montajia. Seaskako buruek bilduko dana ikastola sarearen azpiegitura, maileguei aurre egin eta bulegoa bera bizirauteko bermea dela diote, ez da gutxi. Hala be, balorazio kualitatibo gutxitxo

"Herri Urrats, beharrik ba dago?"



egiten

Jon Iñaki Izarzelai
Seaskako bertso irakaslea


ote den kezka daukat. Lan horien iparraz gutxi berba egiten da eta gutxiago dakigu. Alde batekoek sosak eta bestekoek berriz, ez danak jakina, Sarako bezperako parranda aipatzen dituzte. Baina ez gaitzela kexa egiten denaz, egiten ez denaz baino.

Euskara eta borroka armatuaren arteko identifikazioa, miloika aurreritzi oker eta burugabeko deskalifikazioen itxasoan Senperekoa lakua baino irla gehiago da. Bitartean administrazio eta estatu frantsesak, betiko antzera, suge lana egiten du. Sugetan, anakondaren itxurara, ez sugerriaren ziztada azkarraz, estatuko hizkuntz eta kultura desberdinen inguruan kiribildu egiten da suabe suabe. Presa gabe ahal duena estutuaz: Euskararen alegalizazioa, Tubounen legea, Europako hizkuntzen karta ez sinatzea eta beste hainbat lekuko. Gu, mugak desagertuta gauzak aldatu direlakoan gaude baina benetan euskaraz bizi ezin izanaren mugak hor dirau eta horretarako bai hango eta bai hemengo ikastolek badakite pauso berrien beharrea daudela. Bitartean, segi dezala Herri Urratsek bidea eta domekan eman bere urratsa.

Txakun taldeek. Maiatzaren 19an, **Oskorri** eta **Erramun Martirikorena** izango dira

Des Alles aretoan.

Argia (95-4-30)



**LOGOPEDIA
ZENTRUA
ARRASATE**

HIZKUNTZ-ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR-IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3-1 Esk
Tfnoa: 79 79 46 ARRASATE

**EXPRESS
AKEITEGIA**

Santa Kurtz, 16
Tfnoa: 79 23 43

GATZAGAn,

ERDI ERDIAN

**ZUHAITZ
jatetxea**



**ZENTRO
PSIKOPEDAGOGIKOA**

Zerbitzuak

Erreabilitazio funtzionala

Logopedia

Laguntza terapia

Ignazio Zuloaga kalea, 10
79 48 77 ARRASATE

Mikel eta Pauxi: "Atxabaltan ondo margotzen dakien jende asko dago"

Mikel eta Pauxi marrazkilari eta margolari trebeak dira. Mikel Biologiako karrera egiten ari da Bilbon eta Pauxi berriz arotza izateko ikasten. Beraientzat margotzea afizioa baino gehiago da. Mikeli, margoak eta koloreak baino hobeto, marraztea doakio eta Pauxiri berriz margotzea, koloreekin aritzea, e.a.

Margolaritzarekiko zaletasuna nondik datorkien galdetu diogunean honela erantzun digute: **"gu seguruasiko beste asko bezala hasiko ginen margotzen, klasean beti aritzen ginen marrazkitxoak egiten, beti zegoen marrazteko zerbait"**. Momentu honetan batak marrazkia hobeto dominatzen du eta besteak margoa. Horrela ondo konplementatzen dira. Batak besteari dakiena erakusten dio. Modu honetan margo munduan ezagupen zabalago bat lortzen dute.

Bi mutil hauek intentzio eta gogo haundiz sortu zuten taldea. Atxabaltako margolariak elkartu eta elkarlanean lan egingo zuen talde bat gura zuten. Hala ere, ordutik bi urte pasatu direnean beraien helburuak ez direla bete kontatu digute: **"Momentu honetan ez gara talde serio bat, jendea ez zaigu hurbildu eta biok bakarrik gaude ume pilo batekin"**.

Gaur egun, bakoitza bere aldetik ari da lanean. **"Taldea bezala, muralak, marrazkiak, logotipoak, e.a. egiten ditugu norbaitek ala eskatzen**

Mikel Arroiabe eta Pauxi Bengoa Margo Lagunak taldeko bi kide dira. Duela pare bat urte gutxi-gorabehera sortu zen taldea. Bi mutil hauek margo munduan mugituko zen talde bat sortzea gura zuten. "Behar batzuk betetzeko sortu zen taldea, lokal bat bageneukan baina margo munduan urrunago joan nahi genuen".



digunean".

Pauxik koadroak margotzen jarraitzen du eta herriko gazte talde bati margo klaseak ematen ari da. Mikel berriz, komiki munduan murgilduta dago. Komikigintzan oso trebea da. **"Aldizkari batzuetarako komikiak egiten ari naiz eta konkurtso batzutarara ere aurkeztu naiz"**.

Beraien ustetan, margotzen eta marrazten fenomeno den jendea dago herrian, baina elkarlanean aritzeko estruktura on bat falta dela diote. **"Guk ezin izan dugu estruktura hori lortu, taldean bi bakarrik izatean batek hutsegiten badu ezin da ezer egin eta hori da momentu honetan gertatzen zaiguna. Bakoitzak gure gauzak ditugu egiteko eta oso gutxitan elkartzen gara, jarraipena falta zaigu"**.

"Herrian edozein taldek zer edo zer marraztu

gura duenean beti kontaktzen dute gurekin. Ezagutzen gaituztenaren seinale ona da hori". Baina beraien asmoa urrunago joatea litzateke. Alde batetik teknika ezberdinak dakizkien jendea ekarri gura dute, gaztetxoek teknika desberdinak ikas ditzaten. Beste aldetik jendea erakarri nahi dute taldera.

Aurrera begira Mikelek eta Pauxik margo munduan duten ezagupena haunditu gura dute. Afizioa eta "anbizioa" badute behintzat eta ea ba beraien helburuak betetzen diren.

Amaia-Berri, S.L

Gasa- Klimatizazioa-Isurkor Teknologia

Otalora, 18 behea

Tfno-Faxa: 77 06 49 ARETXABALETA



KELER



El León

FELIX ARRESE

Edari Banatzailea

Industrialdean

Tfnoa: 79 60 65

Otala-zelai eguna

Otala-zelai eguna, "Santo Domingo" hain zuzen ere, entzute haundiko jai izan da beti. Atxabaltarren artean sustrai sakonak ditu. Aintzina Otalora Jauregiko dinastiak, erromeria egin ohi zuen zelaian maiatzaren 12an. Garai haietan Otaloratarrak ziren Otala-zelaiko harizpe eder horren jabe.

OTALA-ZELAI EGUNAREN JATORRIA

Gaur egun Otala-zelai eguna jai giroan ospatzen bada ere, aintzina, behar bati lotutako ekintzaren inguruan antolatzen zen.

Udaletxean dagoen 1866ko idazki batek honako hau kontatzen du:

Maiatzean aukeratzen ziren baserri auzo bakoitzak azaldutako zezenen artean behien "zerbitzurako" mendira jareingo zirenak. Aukeraketa eguntzat, maiatzaren



Aintzina gozaria eta bazkaria hartu eta familia guztia joaten zen Otala-zelaira

12aren hurrengo igandea hartu zuten garai batetan, eta gaur arte iraun du jaiak, aukeraketak ordea ez. Dena den, eta garai hartako bizimoduaz pixkat jabetzeko hona hemen, Udalak auzoei jarritako baldintzak zezen kontu hauetan:

Kalekoek, Oro eta Apotza-Etxebarrikoekin batera zezen bat jarri behar zuten, maiatzean ekin eta urte betez behien "zerbitzuan" arituko zena. Korueta, Aozaratza, Larrino eta Bedoñakoek, auzo bakoitzak zezen bat. Galartza eta Izurietakoen artean beste zezen bat. Areantza eta Arkarazokoen artean beste zezen bat.

Aurkeztutako zezenek, bi urtetakoak izan behar zuten, 6 kuarta térdiko altueraz eta gainera, ondo egindakoak.

1866. urte hartan, Francisco Urrutia (Zelaikoa) zen alkate eta beste batzuren artean Jose Antonio Arenaza eta Alejandro Herrazti zinegotziak.

Aurrean azaldutako hau Otala-zelai egunaren jatorriaz ezagutzen den apurra da.

LEHENAKO OSPAKIZUNA

Jai haundia egiten zen lehena Otala-zelai egunez. Udaberriko lehen erromeria izaten zen eta inguruko herrietatik etortzen zen jendea. **Visi Alzola** atxabaltarrak oraindik ere ondo gogoratzen du Santo Domingo eguna nola ospatzen zen. Kontatu digunaren arabera gozaria eta bazkaria aldean hartu eta familia guztia hurbiltzen zen harizpe ederrera eguna pasatzeko asmotan. Erroskilerook, gatzatu saltzaileak, karamelo saltzaileak ez ziren faltako egun honetan.



Dantzari gazttxoenek Otala-zelai egunean dantzatzten dute lehenengo aldiz.

Bertsolari ezagunak etorri oi ziren, Basarri eta Uztapide esaterako. Gazttxoentzako berriz, astokarrerak, saku-karrerak, e.a. zeuden.

Arratsalde partera erromeria egiten zen bederatziak arte eta gero kalean izaten zen dantzaldia hamarrak arte.

Otala Jauregian bazkaria egoten zen nahi zuenarentzat. Oraindik ere atxabaltar askok gogoratuko du Otala-zelai egun batez, tximista batek emakume bat hil zueneko gertakizun hura. Kontatzen denez tximistak bazkaria zerbitzatzten ari zen neska gaztea bete-betean harrapatu eta hil zuen.

Santo Domingo egunez emakumeek bata berriak jazten zituzten eta mutilek berriz alkondara txuria eta "mil rayas"-ak. "Haiek ziren garaiak haiek" diozku Visik. "Orain gauzak asko aldatu dira".

Otala-zelai baserriko **Santi Ayastyuik**, ondo-ondotxotik bizi izan du egun hau beti. Kontatu digunaren arabera aintzina erromeria haundia egoten zen Otala-zelain. Gerora urte batzutan zehar indar hori galdu egin da baina orain berriz ere berreskuratzen ari da.

Otala-zelai egunez, euria eta oreixa egin oi zuen askotan eta lagun askok Otala-zelai base- rrikoei euria egiteko erre- zatzten ote zuten galde- tzen zieten.



Azken urteotan animaliekin jokuak egoten dira, oilar-burrukak esaterako

Kontuak kontu, gaur egun oraindik ere gure artean dirau Otala-zelai egunak. Ez du behar-bada aintzina zuen bezalako maila edukiko, baina herriko beste auzoetan egiten ez diren ekintzak egoten dira, soinu-joleak, animaliekin jokuak, trikitalariak, bertolariak, e.a.

Horrelako egunak eustea garrantzitsua da eta guztion lana gainera. Jakina da, denon artean emango diegula bizia jaiiei.

Mugarrietatik buelta

Aintzinako ohitura da Atxabaltan Otala-zelai egunez herriko alkate, zinegotzi eta auzo-alkateek Udalarenak diren lurak bisitatzea. Horrela, Udalarenak diren lur sailak ikusiz buelta bat ematen da. Buelta honetan, mugarriak behar den bezala dauden, ze baso garbitu premian dauden, e.a. ikusten da.

Momentu honetan Udalak Urbaltz gainean eta Arientza gainean ditu lur sail gehienak. Ibilaldia Peiñakulu ingurutik hasi eta Arientza gaina pasatuz, Urbaltzen bukatzen dute. Ondoren, urteroko ohiturari jarraituz Matikuan egin izan dute bazkaria.

Arlutz saski-baloi txapelketa

Aurreko astebukaeran Arlutz saski-baloi txapelketaren 5. ihardunaldia jokatu zen. Hiru partidu bakarrik egon ziren eta emaitzak ondorengoak izan ziren:

Taugres	49	Fatus and the others	42
D.D.K.	56	Aker	70
Peña Zurito	47	Esguince	68

Klasifikazioa ondorengo da:

1.- Fatus and the others	6 puntu	6.- Jose Augus	4
2.- Lexe Gurelesa	5	7.- Aker	4
3.- Smorfilies	5	8.- Taugres	4
4.- Esguince	5	9.- Peña Zurito	4
5.- D.D.k	5	10.- Peña Manolin	3

Antolatzaileen oharra: Arlutz saskibaloi txapelketan parte hartzen ari zareten taldeok 3.000 pezetak ordaintzeko, maiatzaren 13a duzue azken eguna.

Maiatzaren 9an, **Deba Arro-ko pelota txapelketa** jokatu zuten Atxabaltako pelotariak Aloña-Mendiren kontra. Partiduak Atxabaltan jokatu ziren eta ondorengo emaitzak lortu ziren:

Infantil mailan: Bengoa-Lasagabaster	18	Gesalibar-Galdos	6
Senior mailan: Apraiz-Uriarte	9	Izasti-Lizarralde	22
Senior mailan: Errasti anaiak	22	Barrena-Maiztegi	12

Partidu honekin liga amaitu dute. Infantilak eta seniorrak klasifikazioan lehenengo gelditu dira. Orain, Deba Behekoen kontra semi-finala jokatuko dute.

FUTBOL EMAITZAK

PREFERENTE

ZARAUTZ	1	UDA	1
---------	---	-----	---

1º ERREGIONALA

UDA	3-	BERGARA	0
-----	----	---------	---

1º JUBENILA II

UDA	8	ILINTXA	1
-----	---	---------	---

NESKAK

UDA	3	URRET XU	2
-----	---	----------	---

SASKIBALOI EMAITZAK

KADETEA EMAKUMEZKOAK

-A Taldea-

ALMEN	32	ANDRAITZ	4
-------	----	----------	---

Maiatzaren 14an herri-arteko pelota torneoa izango da Atxabaltan goizeko 11,30etan ekinda. Atxabaltako pelotariak Zumarragako pelotarien kontra jokatuko dute.

LEBER, GABINETE PSIKOPEDAGOGIKOA

Diagnostikoa-Orientazioa
Laguntza terapia
Mota guztietako eskola arazoak

Nafarroa kalea, 2 ARETXABALETA
79 03 34 (Ordutegia: 3etatik-7etara)

MATIKUA Taberna

Aozarataz auzoa
% 79 16 68
ARETXABALETA

TXIMAK

Ileapaindegi mistoa

Herriko Plaza, 5- Behea
Tfnoa: 79 83 64
ARETXABALETA

LASA AGUILERA

Aholkularitza

Andra Mari Auzunea,3
☎ 79 29 26
ARETXABALETA

BITXITEGIA

MIREN & ZURIÑE BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA
Otalora kalea Eliza aurrean.
Tfnoa: 77 13 57

SAGASTA

ELEKTRIZITATEA

Elektrogailuak
Elektra-instalaketak
Otalora, 14
Tfnoa: 79 16 10

Maritxu

Mertzeria

Araba Ibilbidea, 24
Tfnoa: 79 23 53
ARETXABALETA

Eloy Borgas Iglesias


- Sukalde muntatzailea
- Aroztegia orokorrean

SantaKurtz, 24 Aretxabaleta
Tfno-Faxa: 79 02 51



AITZIBER NIÑO

Lezama Merkatal Zentrua
Tfnoa: 79 13 32



IBARRA ESTANKOA

Tabakoa eta
ikasmateriala

Bizkaia, 3 Tfnoa: 79 23 77

Dorleta Taberna


Loramendi, 8
Tfnoa: 79 94 15
Aretxabaleta

ARBULO HARATEGIA

Santa Kurtz, 5
Tfnoa: 79 02 24
ARETXABALETA

XVIII OTALA-ZELAI KROSA: 81 lagunek parte hartu zuten krosean

Irabazlea, Manu Urtado helmugaratu zen unean. Urkuluri bi bueltak 43' 33''-ko deboran ematea lortu zuen. Ez zuen Jose Apalanzaren record-a gainditu. Azken honek 40' 59'' dauka ezarria record-a.



Irabazleak:

Senior mailan:

- 1.- Manu Urtado (Azpeitia)
- 2.- Jose Manuel Tapia (Orio)
- 3.- Josu Arregi (Azpeitia)
- 4.- Javier Mentxaka (Arrasate)
- 5.- Jose Javier Cuadrado (Ordizia)

Beteranoak:

- 1.- Serafin Garcia (Lasarte)
- 2.- Enrike Kabiketa (Arrasate)
- 3.- Francisco Andres (Arrasate)

Junior mailan:

- 1.- Alexander Carretas (Galdakao)
- 2.- Martin Davila (Arrasate)
- 3.- Igor Dublan (Aretxabaleta)

Emakumezkoak:

- 1.- Pilar Arriola (Elgoibar)
- 2.- M. Jose Gil (Arrasate)
- 3.- Ana Maiztegi (Elgoibar)



Bost emakumek parte hartu zuten krosean

Pasatu berri den domekan, urtero bezala Otxalazelaiko krosa izan genuen Urkulun. Eguna sargori azaldu zen, takarraran egiteko ez hain aproposa.

Guztira 81 lagunek eman zuten izena. Hauetatik, 53 senior mailan; 27 beterano; 6 junior eta 5 emakumezko. Senior mailakoek bi buelta eman behar izan zituzten eta beste guztiek buelta bakarra. Parte hartzaile guztiek batera hasi zuten lasterketa.

Senior mailan lehen atxabaltarra **Joseba Larrinaga** izan genuen. Joseba 12. postuan sartu zen, 47' 34''-ko denbora eginez. Berandutxoago, 52' 44''-ko denbora eginez **Oier Etxebarria** sartu zen, 28. postuan. 36 eta 38. postuetan **Joseba Gonzalez** eta **Josu Lanzos** sartu ziren eta 40. postuan **Xabier Sarasua**.

Beteranoetan, lehen atxabaltarra **Jesus Lombide** izan genuen, 10. postuan sartu zen, 25' 32''-ko denbora eginez. **Pedro Mari Azkargota** ere bere atzetik sartu zen. Hauez gain **Jose Revuelta**, **Feliciano Martinez** eta **Javier Etxenagusia** ere parte hartu zuten. Beteranoetan azpimarratu behar 74 urteko elgoibartarra, **Jose Gurrutxaga**, izan genuela lasterkerta korritzen.

Junior mailan ostera, **Igor Dublan** 3. postuan sartu zen 24' 15''-tara. **Aitor Atxak** 5. postuan bukatu zuen, 25' 47''-ko denbora eginaz. Emakumezkoetan ez genuen atxabaltarik izan.



Asier Dublanek 3. postuan bukatu zuen

FELIX PAGALDAY


Deba Garaiko
Biona
Pentsuen Banatzailea
Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak
Mitarte, 7 behea ☎ 77 00 33

MIKELOS

Moda
Guztia Zuretzat

Iparagirre 4 ☎ 79 10 96
ARETXABALETA

EGUZKIGRAF



Aldizkariak
Inpresoak
Bulegoko materialak

Aretxabaletako Industrialdea, F-0-4 ARETXABALETA
Tfnoa: 943- 79 18 44 Faxa: 943- 79 29 41

KAZETARI GAZTEAK BAINA TREBEAK

Kurtzebarri Eskolako 8. mailako ikasleek aldizkari pertsonal bana egin dute kurtsoan zehar egindako lanetan oinarrituz.



Proiektu hau garatzerakoan ikasleek aukera izan dute irakasleekin landutako ereduez gain inguruko eta kanpoko kazetari ospetsuekin solasaldiak izateko: Azaroan Asier Aranguren (ETBko kazetaria) Kirolez Kirol saio bat Kurtzebarrin burutu zuen eta proiektua bukatzeko Gema Lasarte (Egunkariako kazetaria) ikasleek egindako aldizkariak aztertu ondoren bere eritzia ematera etorriko zaigu maiatzaren 12an.

Hemendik aurrera liburutegian egongo dira aldizkariak

Aldizkaria egiterakoan kontutan hartu dutena:

- nori zuzendua den: zenbat dakien aukeratutako gaietaz, adina...
- informazio berria ematea
- hizkuntzaren ezagupena

Aldizkariaren ezaugarriak:


- gai eta izen aldetik desberdinak eta ugariak
- bakoitzaren gustoa eta estiloak errespetatzen ditu.
- bakoitzaren trebezia agertzeko aukera ematen du: *marrazterakoan, idazterakoan, teknologia berriak erabiltzerakoan.*



8. mailakoek euren adineko jendea hartu dute aldizkariaren hartzailetzat

Aldizkariaren atalak:

- 1.- Editoriala
- 2.- Elkarrizketa
- 3.- Tresna bati buruzko artikuloa
- 4.- Animalia baten erreportaia
- 5.- Asmakizuna



MEMESA S.L.

Santa Kurtz, 25-27
Tfnoa: 77 11 75
ARETXABALETA

T
X
i
L
A
R
R
A



ELIKADURA
BEREZIA

Durana, 35
Tfnoa: 79 10 15

Loramendi, 9
Tfnoa: 79 44 28
ARETXABALETA

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK URKULU, S.A.

Mitarte, 23
Tfnoa: 79 96 66

Artano Taberna

Herriko Enparantza
ARETXABALETA

SHOT! grabaketak S.L.
Araba Etorbidea, 3-2. solairua
Eskatu Pabiloia
☎ 943-79 37 51

SHOT!
grabaciones

ARRASATE

Gipuzkoa



*Okindegia - Gozotegia
Panaderia - Pasteleria*

Aretxabaleta

Mitarte, 1 - Tfno. 77 00 81

Aretxabaleta

Obrador Propio



Esaten dutenez, euskaldun bat, abeslari on bat da; euskaldun bik bikotea egiten dute eta handik aurrera, abesbatza.

Azken urteotan, Atxabalta izena geografia zabal batean hedatu da musikari esker, eta azken boladan, gregorianoa medio delarik, goi mailako abesbatzaren arrakasta heltzen ari zaigu.

Dena den, bide hau aspaldidanik jorratzen hasi ziren atxabaltarrak. Musika zaletasuna, betidanik egonda/ezagutu da Atxabaltan: Ba dakigu 1866. urtean, "Agrupación Musical" bat zegoela. Gerra ondorentxoan, eta Larrañaga anaiek (apaizak) alde egin ondoren, Iturriotz anaiak (apaizak) etorri ziren. Dirudienez, bokazioa familiaka zihoan. Esan bezala, Iturriotz apaizak etorri zirenean, eta kontutuan harturik, Parrokiako funtzio batzuk triste gelditzen zirela, emakumeen abesbatza bat antolatzea bururatu zitzaion On Fermini. Esan digutenez, musikari ona eta organista trebea zen.

1941eko uztailaren 13an, Korpus Eguna. Meza eta Prozesioa bukatu ondoren, Herriko Plazara jo zuten argazkia ateratzeko asmoz, euren gala onenak jantzita.

Beheko iladan: Anamari Etxabe, Karmen Leanizbarrutia, Duni Zuazabeitia, Begoña Sorotegi.

Bigarren iladan: Benita Zubizarreta, Maria Josefa Ugalde, Pilar Azkarretazabal, Amparo Bengoa, Maritere Antxia.

Hirugarren iladan: Blanca Agirre, Konsuelo Etxabe, Fermina Gabilondo, Marisol Altuna, Regina Elejalde, Juli Azkarretazabal, Asun Elkoro, Fermin Iturriotz (abadea).

Iñaki Urreta Leturiondo
Aitor Antxia Leturia

Familiak nagusi



J.J. Aretxaga

Hitzaldiak eta horreik kontuok ez ditugu sarri aitaketan. Horretxegatik erabaki dut Marisarekin hastera, **Marisa Migelek** eguaztenean hitzaldia emun zuen ta Mondragoen. Hitzaldian problematika familiarraren gainean jardun ei zuen. Herrian bertan be ez litzateke txarto etorriko horrelako hitzalditxo bat.

Dena dela, familiarekin jarraituko dugu. Maiatzaren 7an, domekan, Durangon egin zen Xake Txapelketan Atxabaltako taldeak irabazi zuen. **Andoni Migel**, **Fran Migel**, **Juan Antonio Otero** eta **Aitor Alcaide** izan ziren txapeldunak. Fuerte dabilta migeldarrak.

Baina familia kontuak ez dira hemen akabetan. Joan zen zapatuko egunkariak **Duni Zuazabeitiari** egindako elkarrizketa zekarren atzenengo orrialdean. Elkarrizketa polita, erretratu eta guzti. Elkarrizketa **Unai Loidi** atxabaltarrak egin zion, eta erretratua, barrez, anaiak ataratakoa zen, **Jon Anderrek**. Atxabaltarrek atzeko orrialde guztia zeukaten akaparatura.

Ziklisten familiak ez du suerte haundirik euki. **Mikel Roldan** bigarren geratu zen Seguran eta **Asier Guenetxeak** be beste horrenbeste egin zuen Errioxako bueltan. Baina ez dakit buelta horretan atzenengo buelta ez ete zegoen sobra. Karrera ikusi zuenak ulertuko du.

Domekan Urkulun krosa izan zen. Aldizkari honetan leiru dezakezue zeintzuk izan ziren irabazleak, baina horrelakoetan familiako nagusiak aitaketan dira eta txikiekin ez gara akordetan. Honeik dira beste txapeldunak: benjaminetan, **Nerea Sierra** eta **Iker Orueta**; alebinetan, **Zillaurren** eta **Arkaitz Garai**; eta infantiletan, **Araitz Garai** eta **Unai Sarabia**. Horreitz aparte, akaberan zozketatu zen guardasola **Xabier Sarasuak** irabazi zuen.

Gure herriko gaztetxoak ez dira atzera geraketakoak. Astelehenean Muru-alde inguruan genbiltzanok ondo dakigu hori. Hamahiru neska-mutikok akordeoi kontzertu inprobisatua eskaini ziguten. Hala ta be, badakite zer den kontzertu serioetan jotea. Maiatzaren 19an **Gaztetxoan Akordeoi Orkestrak** Pasaian kontzertua eskainiko du. Euren lehenengo urteera izango da. Zapatu eta domeketan be ensaietan ibili dira horretarako, lan handia egin dute eta badakigu ondo joko dutena.

Julita Gonzalez be lan asko egindakoa da, Kaja Laboralean. Lehengo egunean jubilatua zen. Ondo aprobetxatu aurrerantzean egunak.

A R E T X A Z O K A

LANA

- REMeko klase partikularrak emango dituen norbait behar da. Deitu 3rak aldera, 79 48 38 telefonora.
- Umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko esperientziadun neska prest dago. Deitu, 79 96 10 telefonora. (Maritxu)

ETXEBIZITZA


- Garaje bat alokatzen da, Mitarte 11 kalean. Interesatuak deitu 79 47 62 telefonora.
- Eskoriatza erdian pisua alokatzen da. Sukaldea, bainu gela eta komuna berriztu eta hornituak ditu. Honez gain 3 logela, komedorea, terraza eder bat eta garajea ditu. Harremanetarako deitu: 71 43 51 telefonora gaueko 9etatik 10etara.

SALMENTA

- 82 m²-ko lokala salgai dago. Hiru horma kaleruntza begira ditu eta ez du zutaberik. Lokala Loramendi 10 kalean dago. Telefonoa: 79 01 17
- Pisu bat salgai dago Bedarreta auzoan eta garaje bat Murubiden.. Deitu: 79 80 27 telefonora, eguerdiko ordu 1etatik ordubietara bitartean edo arratsaldeko 7etatik aurrera.
- Sukaldekoko altzariak (ekonomika eta guzti) eta jangelako altzariak salgai. Egoera onean eta merke. 79 01 66 (eguerdian eta gauez, Arantzazu)
- Vespa beltza salgai dago. SS-W. Tfnoa: 79 46 98

Josu Uribarren

“Gozogile lana, lan polita baina gogorra da”



Josu Uribarren

“Josu arrasatearra dugu. Gaur egun pastelero lanetan dabil Atxabaltako “Izozkitegi-an”. Pastelero profesioa, Errenterin ikasi zuen eta gure herrian 4 urte daramatza lanean. Lana berez polita, baina gogorra dela kontatzen digu Josuk.

- **Zer ordutan jaikitzen zara lanerako?**
Laurak eta laurdenetan.
- **Eta ze ordu arte lan egiten duzu?**
Eguerdiko 3rak arte gutxi-gorabehera.
- **Kualitate berezirik behar da gozogile izateko?**
Ez, gauza espezialik ez.
- **Zein pastel da egiteko samurrena ?**
Hasiera baten boileriarekin ikasten hasten da, baina behin ikasi ezker ez dago desberdintasun haundirik.
- **Zu zeu gozozalea zara?**
Egunero pastelak ikusten aburriruta nau.
- **Zein pastel mota salitzen da gehien?**
Klasikoak: ojalbreak, bonbak, milojak, e.a.
- **Salitzen ez diren pastel eta tartekin zer egiten duzue?**
Repartiru eta etxera eraman.
- **Zer nahiago duzu postrerako pastela edo gazta zati bat?**
Nik gazta zati bat.
- **Pastelekin ametsetan egiten duzu?**
Normalean ez, baina lan asko dagoen egunen batetan egin izan dut.
- **Sukaldean txapela ibiltzia derrigorrezkoa da?**
Bai, ilea eusteko.
- **Jentie gozozalea dela uste duzu?**
Bai, nik uste dut baietz.
- **Pastel txikiak ala haundiagoak egitea da errazagoa?**
Haundiak. Txikiek askoz ere lan haundiagoa dute.
- **Erdarazko ala euskarazko liburuak irakurtzen dituzu gehiago?**
Erdarazkuak, erdara hobeto dominatzen dut eta.
- **Romantikua zara?**
Bai, apur bat bai.
- **Noiz bota duzu azken parranda?**
Laneko ordutegiarekin parranda gutxi botatzen ditut. Azkenengo afaria duela bi aste edo egin nuen baina aguro joan nintzen etxera. Hemen ez dago tontokerietan ibiltzerik.
- **Nora egingo zenuke bidaiia bat?**
Hego Amerikara, Venezuela edo Argentinara.



Karmele Martinez
dugu aurreko alean saritu suertatu zena.
Zorionak!!!

Animatu zaitetze eta idatzi.

ARETXAGAZETako bazkide batek, beste lagun batekin, **Mendiola Erretegian** afaltzeko aukera izango du. Horretarako galdera ondo erantzun beharko duzu.

Erantzun guztiek ARETXAGAZETAren bulegoan (Kultur Etxean dagoen buzoian) egon beharko dute datorren eguna baino lehen.

ESKORIATZA

Tfno 714345

MENDIOLA

ERRETEGIA

BAZKARI
ETA
AFARIAK

ORDUTEGIA :
12,30 - 15,30
19 - 23

ASTELEHENETAN
ITXITA

Zein aldetan daude kokatuta Udal baso gehienak?

a. - Arientza aldean

b. - Galartza auzo inguruan

d. - Larriño aldean

Aurreko aleko erantzuna “Langile batzuren hilketan ” zen.

✂

Erantzuna:


.....

Izena:

Kalea:

Tfnoa:

BERGARA



Maiatzak 14

DANTZARI GAZTEEN EGUNA

Maiatzaren 5etik-17ra

ERAKUSKETA

Jose Maria Galan-en argazki erakusketa izango da ikusgai Kultur Etxean.

Maiatzak 19tik-28ra

ERAKUSKETA

Simon Arrieta Zeramika taldearen keramika erakusketa egongo da ikusgai Bergarako Kultur Etxean.

OÑATI



Maiatzak 12

KONTZERTUA

Santa Ana Antzokian MARTIN CARTHY arituko da kantari.

Maiatzak 13, zapatua

GIPUZKOAKO BERTSOLARI TXAPELKETA

Lehen faseko azken kanporaketa maiatzaren 13an izango da Santa Ana Antzokian, gaueko 10,30etan.

Maiatzak 19, eguakotxa

KONTZERTUA

Gaztelekun ELIOT MURPHYren kontzertua.

Maiatzak 21, domeka

KONTZERTUA

Arratsaldeko 7,30etan Santa Ana Antzokian "VIRTUOSOS DE MOSKU" laukotea izango da.

ESKORIATZA



Mendi hilabetea Eskoriatzan

Maiatzak 13

DIAPOSITIBA EMANALDIA

"Baghirathi III" diapositiba emanaldia egongo da kultur etxean Felipe Uriarteren eskutik, arratsaldeko 7,30etan.

"Ruandarekin elkartasun afaria" izango da Eskoriatzako frontoian, arratsaldeko 9,30etan. Izen ematea, Eskoriatzako Kultur Etxean edo 71 44 55/ 71 46 88/71 44 37 telefonoetara deituz.

Maiatzak 19, eguakotxa

DIAPOSITIBA EMANALDIA

"SOL Y BRUMA, MALI" eskainiko du Luis I. Gonzalez-ek. Kultur etxean izango da arratsaldeko 7,30etan.

Maiatzak 23, martizena

DIAPOSITIBA EMANALDIA


"ALASKA" diapositiba emanaldia izango da kultur etxean Felipe Uriarteren eskutik. Kultur etxean arratsaldeko 7,30etan.

Maiatzak 25, eguena

DIAPOSITIBA EMANALDIA

"VERDON" eskalada. Luis I. Gonzalezek emango du kultur etxean arratsaldeko 7,30etan.

ARRASATE



Maiatzak 13

DANTZA

Gaueko 10,30etan Amaia Antzokian Metros taldearekin "Miénteme por favor" dantza garaikideko emanaldia.

Maiatzak 18, eguena

BERTSOLARI HITZALDIA

Monterronen izango da, arratsaldeko 7etan Amuriza eta Egañarekin.

**ZARAIA
TABERNA**

Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan

MANTEKA ANAIK

**BENGOA
URDAITEGIA**

Bertako okelak eta mortzilak

Durana, 9
Tfnoa: 79 19 79

MARI-MERKE

Ipuinak eta jostailuak

Lezama Merkatal Zentrua
ARETXABALETA

DON VIDEO

**PELIKULARIK
BERRIENAK**

Lezamako Merkatal Zentrua
ARETXABALETA

ARETXABALETA



Maiatzak 13, 14

MENDI IRTEERA ETA HERRI URRATS

Murruxiko M.E.ak antolatuta Nafar Pirineoetara irteera egingo da larunbatean, **Ori mendia** igoz eta domekan **Herri Urratsera**. Izen ematea Arlutzen.

Maiatzak 14, domeka

HERRI-URRATS

Loramendi K.E.ak autobusa antolatu du **Herri Urratserako** (Senpere). Larubatetik igandera laguntzera joan gura duenarentzako autobus bat izango da. Bestalde egunean bertan joateko ere autobusa egongo da.

Autobusak 7,45 etan irtengo du Azbetik eta apuntatzeko azken eguna eguna da. Apuntatzeko Loramendi K.E. edo 77 09 70 telefonora deitu. Itzulera arratsaldeko 7etan izango da.

ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Aretxabaleta-Oñati-Udana-Astiria-Zerain-**Segura**-Beasain-Zumarraga-Descarga-Bergara-Aretxabaleta. Irteera goizeko 9etan Zaraia 4 kaletik.

Maiatzak 20, zapatua

EUSKERAREN EGUNA

Ikus egitarau berezia

Maiatzak 21, domeka

OTALA-ZELAI EGUNA

Ikus egitarau berezia

ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Aretxabaleta-Landa-Urbina-Gasteiz-Arkaute-Alegria-**Gereñu**-Agurain-Heredia- Ozaeta-Landa-Aretxabaleta. Guztira 96 Km. izango dira.

LEINTZ UDAL-EUSKALTEGIKO 10. URTEURRENA

Maiatzak 22, astelehena

IPUIN KONTALARIA

KOLDO AMEZTOI ipuin kontalaria izango da Aretxabaletako Udal-Euskaltegiko aretoan, arratsaldeko 7etan.

Maiatzak 23, martizena

HITZALDIA

“**Atxabaila eta Eskoriatzako euskeria**”. Hizlariak **Gotzon Garate** (Deusto unibertsitateko irakaslea, dialektologian aditua), eta **Gerardo Elorza** (UNED-eko irakaslea) izango dira. Hitzaldia Aretxabaletako Udal-Euskaltegiko aretoan izango da arratsaldeko 7etan.

Maiatzak 25, eguna

ANTZERKIA “TAK TIK”

PETER ROBERS eta **PATXI SANTAMARIAREKIN** Eskoriatzako Irakasle Eskolan arratsaldeko 7etan.

Maiatzak 26, eguakotxa

AFARIA

Leintz udal-euskaltegiak antolatuta “**Taberna Berri**” jatetxean afaria izango da gaueko 9etan. Afarira orain arte ibilitako ikasle guztiak gonbidatuta daude. Ondoren erromeria **Laja** eta **landakandarekin**.

Ekainaren 3an, **69an** jaiotakoekin kinto afaria izango da. Izen eman nahi duenak Artano tabernan egin dezala.

BEHARREZKO TELEFONOAK



Aretxabaleta

- Udal Bulegoak 79 10 00
- Udaltzaingoa 77 45 67
- Euskaltegia 79 21 68
- Postetxea 79 28 31
- Kultur-Etxea 79 01 05
- Gizarte-Laguntzailea 79 10 00
- Kiroletxea 79 64 61
- Parrokia (Bulegoa) 79 18 42
- Basotxo 77 09 81
- Urats Gain 79 99 11
- Osasun zentroa 79 74 58
- Hezibide Elkarte 79 31 32
- Industrialdea 79 62 80
- Liburutegia 79 10 00
- Taxi Geltokia 79 22 33
- Loramendi K.E. 77 0970
- Murruxiko M.E. 79 93 74
- Leniz Lanbide Esk. 79 79 00
- Kurtzebarri Eskola 79 00 49
- Pausoka Haur-Esk. 77 03 77
- Santa Rita Ikastetxea 79 17 00
- ALMEN 71 49 64
- Otalora 79 79 99

Udaltzaingoa

- Arrasate 79 14 39
- Bergara 76 14 69
- Eskoriatza 79 03 22
- Oñati 78 04 11

Denetarik

- Eskualde-Ospitala (Arrasate) 79 53 00
- Gurutze-Gorria (Bergara) 76 55 76
- Ertzaintza (Arrasate) 79 71 99
- Suhiltzaileak (Oñati) 79 28 00
- Renfe (Zumarraga) 72 15 15
- Renfe (Gasteiz) 23 20 30
- Pesa (Arrasate) 79 14 19
- Larrialdiak (Arrasate) 79 13 57
- Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzeen Elkarte 79 87 77
- Deba Garaiko Udal Elkarte 79 33 99
- SOS Deiak 088

AMIETS TABERNA

Iparragirre, 4
Tfnoa: 79 01 29
Aretxabaleta

OSKAR GARAJEA

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 79 98 74
ARETXABALETA



Basabe Poligonoa A-15
☎ 79 34 28
ARETXABALETA

ITURGINTZA



Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87

MUGARRI



Bigarren eskuko autoak, garantia oso osoaz!



OPEL CALIBRA	2.0 i		B-NJ
ESCORT	RS	1.6 i	SS-AD
MITSUBITSU	GLS	4x4 TDi	SS-AP
NISSAN TERRANO		4x4	SS-AM
OPEL KADET	1.7	DIESEL	SS-AF
OPEL KADET	GSi	2.0 i	SS-AG
OPEL ASTRA	2.0 i	ABS	NA-AL
ORION	1.6 i	S-GUIA	SS-AD
ORION	1.6 i	S-GUIA	SS-AB
FIESTA	1.6 i	XR2 i	SS-AJ
ESCORT	GL	1.6 D	SS-Y
TRANSIT	2.5	DIESEL	SS-AG

Autoak berrikusi, probatu eta kontrolatzeaz gain, garantizatu egiten ditugu.